



DEBAko UDALA

2017SPLE0010  
10. BILERA: OHIKOA 2017-10-26

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** hamargarrena

**Eguna:** 2017/10/26

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:20

**Onarpen-eguna:** 2017/11/30

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA  
AITOR SALEGI IRURETA  
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA  
M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA  
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA  
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN  
AIMAR LASA URKIRI  
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN  
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN  
MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA  
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE  
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA  
UNAI LEKUBE ARANBERRI  
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

### **Bertaratzeak eta irteerak:**

### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### ***Urgentziatzko deklarazioa:***

Ondoren zehazten den gaia ez da bilera-deian legezko epean sartu. Halaber, Udalbatzarrak erabaki du gai honi buruzko ebazpena gaurko bileran hartzea, urgentea dela deklaratu baitu. Gaia urgentea deklaratzeko erabakia aho batez hartu du Udalbatzarrak.

Hori guztia ondorengo lege eta erregelamenduen arabera egin da: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Testu Bateratuaren 51. artikulua eta azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez onartutako Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Erregelamenduko 83.artikulua.

**1.-Lankidetzaren hitzarmena Debako Udalaren eta Gipuzkoako Urak, S.A.aren artean Astillero eta Osio kaleak berriro urbanizatzeko obrak direla eta .**

### ***Erabakia.***

Hitzarmen proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

***Lehenengo.-*** Debako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A. artean lankidetzaren hitzarmena sinatzea, Astillero eta Osio kaleak berriro urbanizatzeko obrak direla eta.

***Bigarren.-*** Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean kontratua sinatzeko.



DEBAko UDALA

**Aztergaiak:**

1. Aurreko aktak irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/09/28 eta 2017/10/04).
2. 2018ko Ordenantza Fiskalak. Hasierako onespena emateko proposamena.
3. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
4. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1.- Aurreko aktak irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/09/28 eta 2017/10/04).**

Dagozkion zuzenketak egin ondoren (4. puntuan mozioaren testua txertatzea), 2017ko irailaren 28ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

Dagozkion zuzenketak egin ondoren, 2017ko urriaren 4ko ez ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

### **2.- 2018ko Ordenantza fiskalak- hasierako onespina emateko proposamena.**

#### ***Txostena***

Idazkariak ordenantza fiskalak aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren azalpena eman du: Udalbatzarrak tributuen ordenantza fiskalen onespinari eta aldaketei buruz hartutako behin-behineko erabakiak Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Horrela dio uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituenak, 16. artikuluan.

Hogeita hamar eguneko epean interesatuek alegazioak aurkezteko aukera izango dute.

Bestalde, informazio publikoko epealdia neurtzeko, urriaren 2an indarrean sartu zen 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Lege horren 30.2 artikulua ezartzen du eguneka ezarritako epeak laneguneka zenbatuko direla, hau da, larunbata, igande eta jaiegunak kenduta.

Jendaurreko informazioaren emaitzak ikusirik, alegaziorik ez baldin badago, behin-behineko erabakia behin-betiko bihurtuko da. Jarraian, ordenantzen aldaketak osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Udalbatzarraren erabakiari buruz, Idazkariak zera informatu du: ordenantza fiskalen aldaketak gehiengo soilaren aldeko botoa beharko du.

#### ***Iritziak eta galde erantzunak***

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, aurreko urtean ezezko botoa eman zutela eta aurten ere ezezkoa izango dela. Finantza, Ondasun, eta Kontuen Batzordearen aktan jasotzen da irizpena aho batez egiten dela, baina batzorde bakarra egon da eta berak ez zuen parte hartu. Ez da egon bigarren bilera bat eta ez dute aukerarik eduki parte hartzeko.



## DEBAko UDALA

Joan zen urtean ezezko botoa emateko arrazoiak aurten ere errepikatu egiten dira, OHZ-ren inguruan ez daude ados inor erroldatua ez dagoen etxebizitzaren errekargua jeistearekin, auzokonposta egiteagatik aplikatzen zen hobaria kentzearekin eta hondakin-bilketaren tasa igoera modu berdinean herritar guztiei aplikatzearekin. Txartelek informazioa ematen dute jakiteko nork sortzen duen errefusa gehiago eta errefusa gehiago sortzen dutenek gehiago ordaindu behako lukete.

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, beraiek ados daudela Ordenantza Fiskalen proposamenarekin.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

### *Bozketa*

◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>13</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>8</b>
<b>Aldeko boto-emaileak:</b> PEDRO M <sup>a</sup> BENGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Aurkako botoak:</b> .....	<b>5</b>
◇ <b>Aurkako boto-emaileak:</b> MAIDER ZUBIKARAI, ITZIAR IRIZAR, MIREN ELISABETH URTEAGA, JOSE LUIS ALBIZU, AIMAR LASA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b>	<b>0</b>
◇ <b>Emaitza:</b> UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

### *Erabakia.*

Aurrekarien berri izanda, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, horretarako aintzat hartu da Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena eta Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren batzordea:

**Lehenengo.-** Onartzea Udal honetako 2018. ekitaldirako Ordenantza Fiskalak, laburpen honen arabera:

- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga.
- Zerbitzuak eman eta iharduerak burutzeagatiko tasena.



## DEBAko UDALA

**Bigarrena.-** Hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendaurrean ipintzen da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Gipuzkoako Herri Ogasunen Arautzaila, lehen aitatutako artikulua 2. puntuak agintzen duen eran:

- a) *Ikusgai dagoen lekua:* Udaletxe honetako Kontu-hartzailetzan.
- b) *Aztertu eta erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun behin iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, bulego orduetan.
- c) *Erreklamatu dezaketenak:* Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. Artikuluan adierazten direnak.
- d) *Aurkezteko bulegoa:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusia. Halaber, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Jardunbidearen Legeak 38. Artikuluan aipatzen dituen lekuetan.
- e) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udalbatzarra.

Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko arauzko epean inork ez balu egingo, erabakiak behin-betikotzat hartuko lirateke akordio berririk hartzen ibili gabe.

### 3. Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

126	2017/10/02	Quide S.A. enpresaren neurri zuzentzaileak eskatzea	2017URLA0006
127	2017/10/03	Udal erroldan baja ematea.	
128	2017/10/03	Udal erroldan baja ematea.	
129	2017/10/03	Osio kalea 1-7ko harkaitz-esponda egonkortzeko txosten geoteknikoa egitea esleitzea	2016URES0006
130	2017/10/06	Eguneko zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko langile baten kontratazioa urriaren 9tik 16ra.	
131	2017/10/06	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 214 erreziboa ezeztatzea.	
132	2017/10/10	Debako udala Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzea.	
133	2017/10/11	Eguneko zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko langile baten kontratazioa irailaren 13an.	
134	2017/10/18	Debako udalak, udaleko gizarte langilea izendatzea GFA-ko Gizarte Zerbitzuen sailarekin egin beharreko kudeaketetarako.	
135	2017/10/18	Ifarkale 14ko "Bañez etxea"ri buruz udalak duen interes eza agertzea.	2017SSUB0001
136	2017/10/23	Astillero 21-eko proiektuan jasota ez zeuden obren onarpena udalaren aldetik	2015UROM0017



## DEBAko UDALA

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### **6.- Eskariak eta galderak.**

Itziar Irizar zinegotziak galdetu du Burugorri eraikinean dagoen tabernaren kudeaketarako esleipen pleguen inguruan. Gogorarazi du, taberna jadanik itxita dagoela eta Itziarrentzako garrantzia duela epe labur baten berriro irekita egotea jendea biltzeko gunea baita.

Alkateak erantzun dio, Udalak jarduera proiektua egitea eskatu diola Tokiko Entitate Txikiari, izan ere, eraikinean egiten diren jarduerengatik erantzunkizunak eratorri ahal dira.

Itziarrek erantzun dio, bi gauza desberdin direla tabernaren kontratazioa eta eraikinaren lagapena egitea ondasunen zerrendan sartzeko. Esan du, jadanik jarduera proiektua egiten ari direla.

Alkateak esan du, kontratazio espedienteari hasiera emateko Tokiko Gobernu Batzordearen ez ohiko bilera bat egin behar baldin bada egingo dela.

Aimar Lasa zinegotziak Udal aldizkariaren inguruan kritika egin du, berak etxean jaso baitu beste edozein herritar moduan. Gaineratu du, badagoela partehartze batzorde bat eta beraiek parte hartu nahi dutela aldizkaria egiteko prozesuan.

Alkateak erantzun dio, Partehartze batzordeburua bera dela eta asmoa dagoela aldizkaria batzorde horretan lantzeko.


Aimarrek esan du, Auzo Udalarri egiten zaiola erreferentzia aldizkarian eta bertan behera lagatzeko asmoa dagoela. Hori egiteko jarraituko den prozeduraren inguruan galdetu du.

Alkateak erantzun dio, beraiek ez daudela ados TETarekin, proposamen bat egingo dutela eta talde guztiekin hitz egingo dutela. Aztertu beharko da zein prozesu jarraitu, desagertu araztearena edo aldatzearena.

Aimarrek mahairatu du, Markiegiren omenaldiaren ekitaldi instituzionalaren inguruan, beraiek uste zutela antolakuntza eta gidaritza udalarena izango zela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartuko zuela, baina alderantziz izan zela eta GFAk “jan gintuela”. Plataformarekin egindako bileran ez zuen ulertu gauzak horrela izango zirenik. Beraien ustez Udalarri zegokion ekitaldi instituzionala antolatzea eta jarraitutako modu horien aurrean beraien desadostasuna adierazi dute.

Alkateak erantzun dio GFAk bazeukala asmoa zer edo zer egiteko eta beraiek ez dutela ezer egin. GFAk asmoa zeukala ekitaldi hori antolatzeko udalak parte hartu edo ez.

Maria Luisa Albizu zinegotziak adierazi du alderdi politikoen “puesta en escena” izan zela eta beraiek alderdi politiko ez izanda umezurtz sentitu zirela. Programa osoaren balorazioa egitea komeniko litzatekeela esan du.



## DEBAko UDALA

Maidar Zubikarai zinegotziak Udalbatzarraren saioaren inguruan esan du polita izan zela baina inprobisazioa atzeman zela.

Ane Egidazu zinegotzak erantzun du lehenengo aldia dela horrelako zer edo zer antolatzen dutela eta ez zeukatela esperientziarik.

Unai Lekubek esan du telebista etorri zela eta horrek proiektzioa ema ziola Markiegiri eta Markiegi nor zen ikusita normala dela EAJko jende asko etortzea.

Azkenik, Aimarrek Kresala Hotelaren inguruan, aste honetan zabaldutako berria dela eta, proposatu du, egia ez izanda, Udalak adierazpen bat kaleratzea.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko urriaren 26an

